



Durangoko Udala

Adinekoentzako jantoki-zerbitzuari eta etxez etxeko janari-zerbitzuari dagozkien Prezio Publikoen Ordenantzan prezio publiko berri bat ezartzeko hasierako onarpena, B) udal Gizarte Ekintza sailak emandako zerbitzu eta jarduerak atalean sartuz.

Udalbatzak, 2025eko apirilaren 30ean egindako ohiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen gehiengoz:

Lehenengoa: Prezio Publikoei buruzko Ordenantzako B) epigrafean (Gizarte Ekintza sailak eskaintzen dituen zerbitzu eta jarduerak) prezio publiko berri bat ezartzea behin behinean onartzea, adinekoentzako jantoki-zerbitzuari eta etxez etxeko janari-zerbitzuari dagozkiena, bai eta Prezio Publikoen Ordenantzaren aldaketa ere, jarraian zehazten den bezala:

- Prezio berria ezarri aurreko testua:

B) Gizarte Ekintza sailak emandako zerbitzu eta jarduerak

ZERBITZUA	MENUAREN KOSTUA	PREZIO PUBLIKOA	BALDINTZAK	ESTALDURA TASA
Jantoki-zerbitzua: udalerriko 70 urtetik gorako pertsonak eta kalteberatasun-egoeran dauden 65 urtetik gorakoak.	6,19	3,50	800 eurotik beherako pentsioa. Pertsona bakarreko familia-unitatea. 1300 eurotik beherako pentsioa. Bi pertsonako familia-unitatea.	56,54%
		6,00	800 eurotik gorako pentsioa. Pertsona bakarreko familia-unitatea. 1300 eurotik gorako pentsioa. Bi pertsonako familia-unitatea.	97%
		- 6 euro biak: ezkontzagaritako edo bikoteagaritako deskontua, diru-sarrera orokorrak 1300 eurotik beherakoak badira. - 10 euro biak: ezkontzagaritako edo bikotekideagaritako deskontua, diru-sarrera orokorrak 1300 eurotik gorakoak badira.		60,82%
Etxez etxeko janari-zerbitzua: udalerriko 80 urtetik gorako pertsonak eta mendekotasun-egoeran dauden 65 urtetik gorakoak.	7,40	4,50	800 eurotik beherako pentsioa. Pertsona bakarreko familia-unitatea. 1300 eurotik beherako pentsioa. Bi pertsonako familia-unitatea.	87,84%
		6,50	800 eurotik gorako pentsioa. Pertsona bakarreko familia-unitatea. 1300 eurotik gorako pentsioa. Bi pertsonako familia-unitatea.	14%



- Proposatutako testua:

B) Gizarte Ekintza sailak emandako zerbitzu eta jarduerak

ZERBITZUA	MENUAREN KOSTUA	PREZIO PUBLIKOA	BALDINTZAK	ESTALDURA TASA
Jantoki-zerbitzua: udalerriko 70 urtetik gorako pertsonak eta kalteberatasun-egoeran dauden 65 urtetik gorakoak.	12,38	4,00	900 eurotik beherako pentsioa. Pertsona bakarreko familia-unitatea. 1500 eurotik beherako pentsioa. Bi pertsonako familia-unitatea.	32,31%
		6,50	900 eurotik gorako pentsioa. Pertsona bakarreko familia-unitatea. 1500 eurotik gorako pentsioa. Bi pertsonako familia-unitatea.	52,50%
Etkez etxeko janari-zerbitzua: udalerriko 80 urtetik gorako pertsonak eta mende-kotasun-egoeran dauden 65 urtetik gorakoak.	9,82	5,20	900 eurotik beherako pentsioa. Pertsona bakarreko familia-unitatea. 1500 eurotik beherako pentsioa. Bi pertsonako familia-unitatea.	52,95%
		7,20	900 eurotik gorako pentsioa. Pertsona bakarreko familia-unitatea. 1500 eurotik gorako pentsioa. Bi pertsonako familia-unitatea.	73,32%

Bigarrena: Espedientea jendaurrean jartzea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean hogeita hamar egun baliodunetan (30) iragarri ondoren, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Horrela, edozein pertsona fisiko edo juridikok dokumentua aztertu ahal izango du Udalaren webgunean (www.durango.eus) eta Durangoko Udaleko Kultura Sailean, eta egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izango ditu. Prezio Publikoen Ordenantzan prezio berria ezartzea behin betiko onartutzat joko da epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez bada; bestela, Udalbatzak ebatzi beharko ditu. Hori guztia Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 50. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Hirugarrena: Prezio berriaren ezarpena, prezio publiko hori eta Prezio Publikoen Ordenantzaren aldaketa Durangoko Udalaren web orrian eta "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean" argitaratuko dira.

Durangon, 2025eko maiatzaren 12an.- Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia Alkatea.